

Edizioa: Atarrabiako Udaletxea. Gizon eta Emakumeen arteko Aukeren Berdintasun Arloa.

Lanketa: Equala Iniciativas S.L Aholkularitza www.equala.es.

Subentzioa: Nafarroako Gobernua. Familia eta Berdintasunerako Nafarroako Inститutua

AURKEZPENA

Azken hamarkadan gizonen eta emakumeen, zein nesken eta mutilen arteko aukeren berdintasunaren aurrerapenak nabarmenak izan badira ere, gaur egun Estatu mailan atzerapausuen denboraldian murgilduta gaude non lorpen asko galtzeko arriskuan dauden. **Atarrabiatik, une hauetan hain zuzen ere, emakumeen eskubideekiko konpromezu argia erakutsi nahi dugu eta udal ekintzatik abiaturik, berdintasun erreala eta eraginkorra galarazten duten oztupoekin bukatzeko helburua dugu.**

I Berdintasun Planaren ebaluazioa egin ondoren (2007-2011) eta ebaluazio hori Bigarren Plan hau diseinatzeko diagnostikotzat harturik, Plan honen lanketan bildu diren ekarpen ezberdinen garrantzia azpimarratu nahiko genuke: ekarpen teknikoak, ordezkariak dituzten alderdi politikoek ekarpenak eta antolatutako herritarren ekarpenak ere. **Datozen urteotan helburu nagusia lortzeko baliogarria izango zaigun dokumentu estrategikoa da Bigarren Plan hau: Atarrabiako gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukerak, eskubideak eta tratuen berdintasuna lortzea hain zuzen ere.** Era berean, gaur egun Europa, Estatu eta Nafarroa mailan indarrean dagoen legediaren baitan kokatzen da eta erakunde eta talde feministek egindako gomendioak kontutan hartzen ditu.

Atarrabiako Aukeren Berdintasuna II Plana zeharkako tresna da eta Nafarroan aniztasun funtzionalaren ikuspegia txertatzen duen lehenengoa da, diskriminazioak ekiditzeko asmoarekin barne zein kanpoko udal jarduerak inplikatur. **Udaletxea bera jarrera parekideetan eta kontziliazio tresnetan eredugarria izateko asmoa dauka, parekidetasuna genero indarkeriarekin bukatzeko biderik egokiena dela uste dugulako.**

Azkenik, aipatzekoa da II Plan honek berdintasun arloan herritarren partehartzea ahalbideratuko duen Udal Kontseiluaren laguntza izango duela eta honek Berdintasun Arlotik eta Berdintasun Batzordetik egiten ari den lana aberatsuko du. Plan hau parekidetasuna, erantzunkidetzeta, jasangarritasuna eta emakumeen jabetza baloretzat harturik gizarte justizian oinarritutako eraldaketan laguntzeko borondatearekin eta indarrarekin jaiotzen da. Etorkizuna bakean eta parekidetasunean eraiki nahi dugulako, helburu zoragarri hau lortzeko herritar guztien inplikazioa eskatu nahi dugu.

Agur bero bat:

Pedro Gastearena. Atarrabiako alkatea (Bildu)

Berdintasunaren alde lan egitea, Justiziaren alde lan egitea

2007. urtetik Atarrabiako Udaletxea emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko lanean aritu da Berdintasun Arlotik eta Berdintasun Batzordetik. II Aukeren Berdintasun Plan honekin ildo beretik lanean jarraitu nahi dugu justizia lortzeko bidean, berdintasunaren alde lan egitea pertsonen garapen integrala kontutan hartzea delako.

Bigarren Planaren oinarriak: hezkidetzak, errespetua, pertsonen arteko tratua ona eta indarkeria ezaren kultura.

Aldaketa sozialak eta erronka ekonomikoen garai honetan, berdintasunaren aldeko politika publikoak mantentzea inoiz baino garrantzitsuagoa da. Hau dela eta, zeharkakotasuna, ebaluazio jarraia, parekidetasuna, genero indarkeriaren prebentzioa eta aniztasun funtzionalaren ikuspuntua izango dira datozen urteotako lan ildo nagusiak. Era honetan, udal jardueraren lan ildoak berresten dugu: **Atarrabiako emakumezkoen bizi kalitatea hobetzea, batez ere krisi garai hauetan non txirotasunaren feminizazioa** ematen ari den eta non Estatu eta Nafarroa mailan herritarren eskubideak eta beraientzako baliabide publikoak murrizten ari diren. Izan ere, gaur egun berdintasunaren alde lan egitea ezin da kostutzat hartu, baizik eta etorkizunaren aldeko inbertsioztat, herritarrak politika berrien erdigunean kokatzen dituen eta justizia soziala helburutzat hartzen duen erronka bezala.

Bigarren Plan hau eta Genero Indarkeriaren inguruko lehenengo udal jarduerarako protokolo koordinatua Udaletxeak dituen tresna eraginkorrenak direla uste dugu gure herrian berdintasuna utopia urruna izateari uzteko eta gero eta gertuago dugun errealitate nabarmen bilakatzeko bidean.

Azkenik, Berdintasun Arloko teknikariei, parte hartu duen gainontzeko arloetako pertsonalari, taldeei eta elkarteei eskertu nahiko nizkieke egindako ekarpen guztiak eta jasotako ilusioa. Seguru nago atarrabiar guztien bizi kalitatea hobetzeko lagungarri izango dela, berdintasuna guztion kontua delako; honetaz jabetzea parekidetasunaren aldeko urrats sendoa ematea da.

Agur parekide bat:

Mercedes Sánchez Arangay. Atarrabiako Udaletxearen Berdintasun Arloko lehendakaria (PSN-PSOE)

SARRERA

Atarrabiako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun II Plan hau 2007ko ekainetik 2013ko ekainera arte indarrean egon zen I Planaren ondoren dator. Hausnarketa sakon eta partehartzailearen emaitza da non herriko

emakumeen beharrak eta gizonen eta emakumeen arteko aukeren berdintasuna lortzeko erronkak aztertu diren.

Azkenengo urte hauetan berdintasun arloan aurrerapausu asko eman dira eta ez soilik emakumeen bizi kalitatea hobetzeko bidean, baizik eta herritartasuna osatzen duten emakume eta gizonen eginbeharren eta eskubideen berdintasuna lan arloan, publikoan zein domestikoan, lortzeko ere. Erantzunkidetzeta eta Administrazioak ezarritako eta instituzioak eta enpresek beraienak egin dituzten kontziliazio neurriak emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza parekidetasunean oinarritzeko tresna garrantzitsuak izan dira. Era berean, emakumeen kontrako indarkeriari egiturazko indarkeria dela onartzea eta bertan esku-hartzearen beharra ikustaraztea (ez soilik arlo judizialean baizik eta hezkuntzan, sentsibilizazioan eta formakuntzan ere) ezinbestekoa izan da diskriminazioaren muturreko adierazpen matxista hauen kontra lanean aritzeko. Estereotipo sexistak eta homofoboak gainditzearen aldeko lana, gune partehartzaile parekideen sorrera, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan hezkidetzaren oinarriak hezkuntza jardueran txertatzeko egindako lana, udal administrazioak hizkuntza bateratzailea eta ez sexista erabiltzeko izandako formakuntza ikastaroak, emakumezko kirolariak, sortzaileak, artistak, ekoizleak, elkarrekin kideak ikustarazteko ahaleginak e.a. emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko bidean egin diren urrtas batzuk izan dira. Baita Atarrabian ere.

Atarrabiako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako I Planak 9 lan arlo zituen: toki-administrazioa eta berdintasun printzipioa uztartze bidean, kultur jarduera, ariketa fisikoa eta kirola, osasuna, jarduera ekonomikoa, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, elkargintza eta gizarte-partaidetza eta espazio eraikia. Guztira, 156 ekintza diseinatu ziren eta Udaletxearen arloetako inplikazioarekin, Berdintasun arloko teknikarien ikuskapen eta koordinazioarekin eta herritarren konpromezuekin azkenengo urte hauetan Atarrabian parekidetasuna guztien kezka eta eginbeharra eta zeharkako lan ildo bilakatzea lortu da neurri handi batean.

Hala ere, eta arlo instituzionalean eta gizartean eman diren aipatutako aurrerapausuak kontutan harturik, 2013. urtean eta egungo krisi ekonomikoaren testuinguruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borroak eta lanak erronka berriei eta konpondu gabeko arazo zaharrei aurre egin beharko diete. Berdintasun planak, eta II Plan hau ere, ematen diren diskriminazioak eta gabeziak antzemateko, berdintasuna bultzatzeko ekintzak burutzeko, udal arloak koordinatzeko, herritarren partehartzea kontutan hartzeko, informazio-sentsibilizazio-formazio jarduerak antolatzeke eta abian jarritako ekintza guztien ebaluazioa eta jarraipena egiteko oso tresna eraginkorrak dira.

II Berdintasun Plan hau burutzeko, arloz arloko datuak eta aurreko Planaren ebaluazio prozesuaren ondorioak aztertu ditugu. Era berean, Atarrabiako herritarrak eta Udaletxearen datu kauntitatiboak ere aztertu egin ditugu: errolla, aurrekontuak, arlo bakoitzaren azken urteko memoriak, arlo bakoitzaren baliabideak, erabiltzaileak eta teknikariak, e.a. Bereziki garrantzia eman nahi izan diogu prozesuaren alde partehartzaileari eta horretarako teknikariekin

elkarrizketak izan ditugu, elkarteekin eztabaida saio bat antolatu genuen, pertsonal politikoarekin beste saio bat burutu genuen eta azkenik herritarreei zuzendutako galdetegiak eskura jarri genituen norberak berdintasunaren inguruko kezka, proposamenak edota iradokizunak adierazi zitzaizkien. Guztira, 60 lagunek inguru zuzenean hartu dute parte egindako diagnosian. Aurreko planaren ebaluazioan, aipatutako diagnosi honetan eta egungo errealitatearen datuetan oinarritu dira II Berdintasun Planaren lanketa eta erredakzioa.

PRINTZIPIO GIDARIAK

Planaren printzipio gidariek planaren beraren edukina eta parte hartuko duten eragile guztien funtzionatzeko jarraibideak definitzeko irizpideak markatzen dituzte.

Plan honek 3 printzipio gidari ditu, elkarri osatzen diotenak eta Planaren ikuspuntu orokorra eratzen dutenak:

- .- Genero ikuspegia eta berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasuna ezartzea.
- .- Aniztasun funtzionalaren ikuspuntua txertatzea.
- .-Elkarbizitza eta partehartze parekideak bultzatzea.

HELBURU OROKORRAK:

- Berdintasun kontzeptuaren zabaltasuna udal arlo guztietan.
- Herritarrei zuzendutako zerbitzua: formakuntza, sentsibilizazioa, partehartzea eta ikustaraztea.
- Berdintasun ezak antzematzeko eta gainditzeko tresna izatea.
- Genero indarkeria: prebentzioa, sentsibilizazioa, antzematea, salatzea eta laguntzea.

PLANAREN BARNE EGITURA ETA EZAUGARRI BERRIAK

II Plan honek 5 lan arlo ditu:

- .- Administrazioa eta hirigintza.
- .-Kultura eta Gazteria.
- .-Kirola eta Hezkuntza.
- .-Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak.
- .-Elkartegintza eta Gizarte-partaidetza.

Lan arlo bakoitzak helburu zehatzak ditu eta hauetako helburu batzuk berezko ekintzak.

Ekintzen erredakzioa ahalik eta argiena izaten saiatu da, ebaluazioari begira, adierazleak eta arduradunak erraz topatzeko asmoarekin. Planak eta plana bera osatzen duten ekintzen ebaluazioak protagonismo handiagoa hartuko dute eta urtean behin ebaluazio txiki bat burutuko da planaren nondik-norakoak ezagutzeko eta, beharrezkoa izanez gero, esku-hartzeko.

Azkenik, Plan honetan arreta berezia jarri nahi izan diogu gizonen eta emakumeen elkarbizitza parekidea bultzatzeari espazio mistoak sortuz non guztien presentzia

eta partehartzea, maila guztietan, bermatuko den, beharrezkoa izanez gero, ekintza positiboak abian jarritz.

1.- TOKI-ADMINISTRAZIOA ETA HIRIGINTZA

Toki-administrazioa

Toki-administrazioan berdintasunaren inguruan esku-hartzearen garrantziak alderdi bikoitza dauka : alde batetik, informazioa eta zerbitzuak eskeintzea eta bestetik, herriaren irudia proiektatzea. Bi funtzio hauek kontutan harturik, gizon eta emakumeen arteko berdintasunak lan jardueretan ez ezik, toki-administrazioaren antolakuntzan eta funtzionamenduan ere nabarmena eta eredugarria izan behar du.

Aurreko Berdintasun Planak jada lan jarduerak hobetzeko ekintzak diseinatu zituen: hizkuntza bateratzailea eta ez sexista erabiltzeko gomendioak, langileei zuzendutako konziliazio neurriak, teknikariei eta politikariei zuzendutako berdintasunari buruzko formakuntza. Bigarren Plan honek hasitako lan ildoetatik jarraitu nahi du, gaur egun sortu diren behar berriei kasu eginez, toki-administrazioaren ezberdintasunak antzemateko gaitasuna hobetzeko eta bertan esku-hartzeko bidean.

Administrazioan aurrepausu handiak eman badira ere, berdintasunaren aroan oraindik ere aurre egin beharreko erronkekin topatzen gara, baita Atarrabian ere: udal lan arloetan ematen den sexu-segregazioa (Zerbitzu Sozialena lan arlo oso feminizatua da, Udaltzaingoa erabat maskulinizatua dagoen bitartean), udal estadistika guztien datuak ez daude sexuka segregatua, e.a.

Plan honen diseinuak pertsonal politiko eta teknikoaren berdintasunarekiko konpromesua neurri zehatz bilakatzeko helburua dauka, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna benetan zeharkako gaia eta guztion ardurua izan dadin

Hirigintza

Antza denez, hirigintza alor neutroa da, sarritan aurrekontuen alde handia bereganatzen duena. Hala ere, espazioen kudeaketa ez da batere neutroa eta bere diseinuaren arabera, erabakiko da eskuragarritasun unibertsala dagoen ala ez, herritar guztien segurtasuna edo bulnerabilitatea, espazioetan parte hartzeko gonbitea edo ukazioa, herritarren batzuen bisibilizazioa edo ezkutatzea.

Atarrabiak kilometro karratu bateko azalera dauka. Azken urte hauetan populazioak goraka egin du eta horren ondorioz, etxebizitza, zerbitzu eta azpiegituren bermoldaketa eman behar izan da. Era berean, herritarren artean jasangarritasunaren inguruko kezka gero eta handiagoa da eta hirigintzaren diseinuan parte hartzeko eskaera gero eta nabarmenagoa. Gauzak horrela, hirigintzak erronka berriei aurre egin behar die, baita Atarrabian ere.

Atarrabian burutu den emakumeek duten hirigintzari buruzko pertzepzioaren diagnosi partehartzailearen arabera, oraindik ere badira bulnerabilitatearen sentzasioa pizten dien tokiak : Argako ibilibidea, aterpearen pasadizoa, errekaen ondoko parkinga, poligono industrial bera eta bere ingurua, Frutalen ibilbidea, lurazpiko aparkalekuak, eta baita kale batzuk ere : Santo Domingo, Kaskalleta, Padre Murillo,e.a.

Argiztapen urria, ordu batzuetan ematen den zirkulazio gutxia, isolatuta sentitzearen beldurra... hauek dira Atarrabiako emakume askok hirigintzaren inguruan dituzten pertzepzioak. II Berdintasun Plan honek pertzepzio hauek sortzen dituen errealitatea eraldatzeko asmoa dauka baita hirigintzaren alorretik ere. Era berean, Plan honek kontutan hartzen ditu aniztasun funtzionala duten herritarren behar espezifikoak eta espazio publikoen erabateko eskuragarritasunaren aldeko apostu argia egiten du.

1.- TOKI-ADMINISTRAZIOA ETA HIRIGINTZA

1.1 Toki-administrazioa, barne funtzionamendua, komunikazioak eta formakuntza eredu bihurtu Atarrabiako herritarrentzat, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren aldetik.

1.1.1.Udalaz gaineko erakundeetatik datozen eta Berdintasunari dagozkion gomendioak aplikatzea.

1.1.2.Udal aurrekontuetan generoak duen eragina aztertzea, emaitzak zabaltzea eta datozen ekitaldiei begira, aurrekontuen eraginez ager litezkeen generoen arteko aldeak zuzentzeko neurri zehatzak ezartzea.

1.1.3.Tokiko administrazioko langileen egoera ezagutzeko ikerketa-diagnostiko bat egitea, era berean egon litezkeen soldaten arteko aldeak, okupazio bereizketa eta abar ezagutzeko eta, ezberdintasun nabarmenak egotekotan, egoera aldatzeko ekintza positiboak ezarri.

1.1.4.Toki administrazioko langileen bizitza profesionala eta familiarra kontziliatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.

1.1.5.Berdintasunari buruzko udal-ordenantza erredaktatu eta ezarri.

1.1.6.Udal datu estadistikoak (zerbitzuak, ikerketak, diagnosiak) sexuaren arabera segregatu.

1.1.7.Udalerrian genero indarkeriagatik egindako salaketen erregistroa izatea.

1.1.8.Indarkeriagatik egindako salaketekin lotutako datuak sexuean arabera bereiztea eta hauen izaera zehaztea.

1.1.9.Tokiko Adminstrazioko langileak eta Udalbatza osatzen duten pertsonak aukeren berdintasunean formatzen jarraitzea.

1.1.10.Euskaraz zein gazteleraz, hizkera bateratzailea, ez sexista eta ez baztertzaila (ahozkoa, idatzizkoa eta ikonikoa) erabiltzea tokiko administrazioen barne eta kanpoko komunikazioetan.

1.1.11.Berdintasun teknikariaren figura eta Berdintasun arloa egonkortzea.

1.2 Edozein sexu-diskriminazio aurreikusi eta ekiditzeko, udalerriko gizonen eta emakumeen benetazko egoera herritarrei ezagutaraztea, arlo desberdinetan, sexuaren araberako edozien motako diskriminazioa antzemateko eta aurreikusteko helburuarekin

1.2.1. Atarrabiako Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasun II Plana eta erakundeon honekiko eta bere betetzearen aldeko ageriko atxikimendua herritarrei ezagutaraztea.

1.2.2.Udaletxearen argitalpenetan (historikoak, kulturalak, UIB, etab.) gizonen zein emakumeen presentzia eta ekarpenak bermatzea.

1.2.3. Berdintasun teknikariaren eta Berdintasun Kontseiluaren arteko lana koordinatzea, aldizkako bileren bitartez, ekintza desberdinen planifikazioa eta Berdintasun Plan honen betetzeari jarraipena egiteko elkarlana bermatzeko.

1.3 Berdintasun printzipioa aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokitzea, kulturaren eta gazteen alorrean.

1.3.1.Administrazioaren zerbitzu guztiek adimen ezintasunik edota hitz egiteko zailtasunik duten pertsonen arretarako protokoloak izan beharko dituzte. Arreta-zerbitzu hauetako langileek edonoiz arintasunez jokatzeko baliabideak izan behar dituzte, laguntza eta arreta pertsonal egoki baterako eskubidea bermatzeko, beti ere intimitatea eta datuen babeserako eskubidea zainduz.

1.3.2.Edozein zerbitzu eta prestazio karterari buruzko informazioa argitaratu behar da era ulergarri eta argian eskaini. Bertan, aukera guztiak, egoera posible guztiak, bateragarritasunak eta bateraezintasunak, eskubide ubibertsalak, ordainketa partekatuta -egotekotan-eta ordaindu beharreko tasak kalkulatzeko moduak agertu behar dira. Gainera, zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko araudiak argitaratu behar dira. Eta informazio horrek Internte bidez eta brailean eskuratzeko moduean egon behar du; horrez gain, telefono bidezko informazio-zerbitzua eskaini behar da, haien inguruko galderei erantzuteko.

1.4 Udalerriko toki guztietan segurtasuna areagotzea eta emakumeen bulnerabilitate egoera murriztea.

1.4.1. Herritarrek arriskutsutzat edo argi gutxiduntzat jo dituzten tokietan eragitea.

1.4.2.Toki-izenen gaineko udal ituna aztertzea Atarrabiako kale, plaza, eraikinak etab. bertako bizitza sozial, kultural edota ekonomikoari ekarpenik egin dioten emakumeen izenak jartzeko.

1.5 Herritar guztien berdintasuna bermatzea udalerritik iblitzerakoan eta udal eraikinetan sartzekoan

1.5.1.Herritarren artean ikerketa/galdeketa bat egitea udalerriko hirigintzak, kale eta parkeen ekipamenduak, etab. dituzten beharrak eta gabeziak ezagutzeko, gehien bat haur eta gazte populazioari eta zaharrei begira.

1.5.2.Kargu publiko eta teknikariak prestatu, etengabe har dezaten kontuan ahalmen-urritasuna duten emakumeen egoera, hirigintza hobetu, diseinatu eta plangintza egiten dutenean.

1.5.3.Hirigintza diseinatu eta plangintza egiterakoan, ahalmen-urritasuna duten emakumeen eta haiek biltzen dituzten elkarten parte-hartzea sustatu, eta horretarako behar duten prestakuntza eskaini.

1.5.4.Espaloiak behertzen direnean, zorrotz bete behar da 'zero-kotako' araudia.

1.5.5.Erabilerara publikoko eremu guztien (jabetza pribatukoak barne) irisgarritasunprozesua azkartzeko neurriak hartu; adibidez, diru-laguntzak eta

bestelako pizgarriak eskaini, arkitektura-oztopoak ezabatzeko.

1.5.6.Espaloieta eta oinezkoentzako guneetan, eserleku publikoak eta bermatzeko eta atsedena hartzeko lekuak ziurtatu (hobeto estalpean eta altuera egokian badaude, gero berriz zutitzea errazteko moduan).

1.5.7.Premia duten ahalmen urriko pertsonen laguntza ekonomikoak eskaini eta etxebizitzetan egokitzapenak egin, horri esker, euren potentzial osoa garatu eta autonomia mugatua izan ez dezaten.

2- Kultura eta Gazteria

Kultura

Guztiok ezagutzen dugu kulturak duen balore eratzailea adierazpen mota ezberdinak transmititzeko eta gizon eta emakumeen belaunaldien sustapen sortzaileak kanalizatzeko momentuan. Hala ere, kulturak betetzen duen funtzio hau baino haratgo bada oso garrantzitsua den beste dimentsioa : kultura berak bere inguruan sortzen dituen elkarbizitzarako eta harremanak sortzeko espazioak, non gizartean ematen diren harreman eta elkarbizitza mota askotan erreproduzitu egiten den.

Kulturak duen gaitsun eratzaileak eta balorean eta sinismenak transmititzeko ahalmenak ezinebestekoa egiten du berdintasunean esku-hartzeko beharra.

Urteko memorian azaltzen diren datuak kontutan harturik, esan dezakegu Atarrabian kultura gehien "konsumitzen" dutenak emakumeak izaten direla : ikastaroak, tailerrak, jarduerak, hitzaldiak, liburutegia, antzerkia... hala ere, proportzio edota protagonismo bera ez da ematen emakumeak kultura kontsumitzaile bezala ikusi ordez, kulturaren sortzaileak edota ekoizleak bezala hartzen baldin baditugu, askoz gutxiago izaten baitira. Era berean, sortzaile edota ekoizle gisa pisu handiagoa duten gizonek ez dute berdin parte hartzen Kulturatik antolatzen diren jardueretan. Gauzak horrela, Plan honek bi erronka hauei aurre egin nahi die eta emakumeek sortutako lanak edota emakumeen errealitateak aztertzen dituzten lanen bisibilizazioaren alde lan egingo du eta kultura jardueretan berdintasunean oinarritutako perttehartze mistoa bultzatuko du.

Gazteria

Gazteriaren bereizketa da Plan honen berrikuntzetako beste bat, gazteen eta berdintasunaren arteko azken datuek eragindako kezkaren ondorioz (Nafarroako Gobernuaren arabera, genero indarkeriak nabarmenki gora egin du gazteen artean). Honetaz gain, diagnosi prozesuan parte hartu duten pertsonen irakurketatik berdintasun gaiak gazteekin lantzea beharrezkoa dela ondorioztatzen da, etorkizun parekideago bat bermatzeari begira.

Kontsumoari lotutako gaueko aisiaren aurrean alternatibarik ez dago, feminitate eta maskulinitate eredu bakarrak inposatzen dira beste batzuen gainean estereotipoen eraginez, errealitatetik oso urrun dauden eredu estetiko batzuen atzetik gehien bat neska gazteek pairatzen dituzten presioak, menpekotasunean, jelskortasunean eta kontrolean oinarritzen diren harreman afektiboak, ciberebullying-a eta sare sozialetan sortzen diren ahuldurak, homofobia, norbanakotasuna... Arazo hauetako bakoitzarentzako erantzunak apustu integrala

egin behar du errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanen alde eta Plan honek helburu horrekin ekintza batzuk martxan jarri nahi ditu.

Atarrabian gazte askok "bajera" deituriko gunetan elkartzeo joera dute. Gutxi gorabehera, 25 bajera daude eta horietatik 4 bat baino ez dira mistoak, hau dela eta gune hauek oso maskulinizatuak daudela eta neurri handi batean neska eta mutilen arteko komunikazioa ahalbideratzen ez dutela esan dezakegu. Gazteria Arlotik elkarbizitza hau indartzeko asmoz hainbat ekintza burutzen dira urtean zehar, II Berdintasun Plan honek dagoeneko hasita dagoen ildotik jarraitu eta sakontzeko helburua eta konpromisua dauzka.

2- Kultura eta Gazteria

2.1 Sortzaile eta arte eta kultura ekoizle diren emakumeen lana bultzatzea.

2.1.1. Liburutegiaren fondoa emakumeek egindako literaturarekin eta emakumei eta hauen egoerari buruzko ikerketekin eta ekarpenekin hornitzea.

2.1.2. Irakurketa-gidak sortzea non eskura dauden edota berriak diren emakumeek egindako lanak zein hauen errealitatea islatzen dutenak zehazten diren.

2.1.3. M8ko eta A25eko egunekin lotutako egitarau bereziak mantentzea (erakusketak, hitzaldiak, aurkezpenak) emakumeek egindako lanekin eta arte adierazpenekin.

2.1.4. Literatura lehiaketaren epaimahaian gizonen eta emakumeen presentzia parekoa lortzea.

2.1.5. Emakumeen presentzia eta partehartzea bermatzea Kulturaren kontseiluan.

2.2 Kulturaren harremanetarako izaera sustatzea, gizonen eta emakumeen arteko topaketa, elkarbizitza eta berdintasunezko partehartzea bultzatuz.

2.2.1. Kultur ekintzetako asistentzia datuak biltzen jarraitzea, sexuen arabera bereiztuak, eta urteroko ebaluaketak egitea publikoaren profila zehaztuz. Batez ere, sexua eta adina.

2.2.2. Udalerriko 18 urtetik gorako gizonei zuzendutako galdetegiak banatzea, eskaintza kulturalari buruzko hauen iritziak biltzeko eta beraien partehartzea bultzatzeko.

2.2.3. Aniztasun kulturala indartzeko eta kultur espazioen eta baliabideen erabilpena bultzatzeko, etorkinei begira ekintza zehatzak martxan jartzea: Haien jaioterrietako prentsa eta haur bibliografia eskaintzea eta hauen eskuragarritasuna iragartzea (Osasun etxean, Jendarte Zerbitzuetan, Kultur Etxean).

2.2.4. Gazte alorrarekin batera urteko programazio bat egitea, kulturarekin lotutako gazteen aisi-eskakizunak asetzeko: zinema, bakarriketak, antzerkia, laburmetraiak... beti ere genero ikuspegia mantenduz gaien eta edukinen hautaketan.

2.2.5. Familiei zuzendutako kultur ekimenak egitea, batez ere asteburuetan edota opor garaietan.

2.2.6.Kultur ekintzen ordutegiak familien kontziliazio beharrei so eginez antolatzea, edota bitarteko ludoteka zerbitzu bat eskaintzea.

2.3 Gazteen arteko genero indarkeriaren prebentzioa, sentsibilizazioa eta detekzioa lantzea

2.3.1.Formakuntza eta sentsibilizazio tailerrak egitea, genero indarkeria mota guztiak aztertzeko. Batez ere, gazteen harremanetan gehien agertzen direnak: teknologia berriak, sare sozialak, festak, bajerak, bikote harremanak, familia, institutua...

2.3.2.Neska gazteekin lan egin eman daitezken eraso sexisteen aurrean autodefentsa bultzatzeko

2.3.3 Gazteei zuzendutako hitzaldiak / ekintzak antolatzea A25aren inguruan eta egun honen ospakizunean inplikatzeko.

2.4 Aisi eskaintza bat bultzatzea non neskek eta mutilak berdintasunean har dezaketen parte.

2.4.1. Gauean, kirol ekimenak antolatzea neskentzat eta mutilentzat, kontsumoari lotutako aisiaren alternatiba bezala. Maskulinizatuta dauden bajerei edota harreman bereiztuei alternatiba bezala ere.

2.4.2.Urtero koreografia mixtoen jaialdia antolatzea.

2.4.3.Txangoak eta irteerak antolatzea igande eta asteburuetan mutilen eta nesken arteko elkarbizitza berdintasunean lantzeko.

2.4.4.Aisialdiko begiraleen Berdintasun formakuntzarekin jarraitzea.

2.4.5.Emakume gazte etorkinen partehartzea bultzatzea kultur ekimenetarako deialdi zuzenak eginez, kontutan hartzen dituzten irudiak erabiliz, etab.

2.5 Maskulinitate eta feminitate eredu berriak bultzatzea gazteen artean, estereotipo sexistetatik haratago.

2.5.1.Mutilei zuzendutako tailerrak maskulinitatearen eraikuntzari buruz formatu eta sentsibilizatzeko (pelikulen, komiki pertsonaien, bideojokoen, pertsonai ezagunen, bizipen pertsonalen analisisien bitartez).

2.5.2.Egutegi bat egitea, non neska-mutilen partehartzeak haien aniztasuna islatzen duen, estereotipo sexistetatik haratago.

2.5.3.Homofobiaren prebentziorako kanpainak, bereziki gazteei zuzenduak.

2.5.4.Baliabide audiobisualen gida bat egitea gazteentzat (dokumentalak, laburmetraiak, pelikulak) haien irudiaren inguruko eztabaida pizteko, estereotipo sexistei eta menpekotasunean oinarritzen diren harreman asimetricoei arreta berezia jarritz.

2.5.6.Gazteei zuzendutako erantzunkidetzaren inguruko kanpainekin jarraitzea.

2.5.7.Berdintekak egiten duen lanarekin jarraitzea eta lan hau bultzatzea.

2.6 Errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harreman afektiboei buruz sentsibilizatzea.

2.6.1.Parekideak ez diren harremanei buruzko eta hauen ondorioen inguruko sentsibilizazio tailerrak (jeloskorkeria, kontrola, menpekotasuna).

2.6.2.Otsailaren 14aren alternatiba izan daitekeen Ihardunaldi/Festa bat ospatzea, gazteen arteko maitasun kanta eta pelikula ospetsuak aztertzeko eta errespetuan oinarritzen den alternatiba parekidea planteatzeko. Ligoteo jatorrerako tailer bat eta abar ere egin daitezke.

2.7 Berdintasun printzipioa aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokitzea, kulturaren eta gazteen alorrean.

2.7.1.Ezgaitasunen bat dute emakumeen irudi normalizatu bat eta rol desberdinetan islatzen duten pelikulak, iragarkiak, dokumentalak... sustatzea.

2.7.2.Udal Liburutegian emakumeak eta desgaitasunari buruzko fondoak (idatzizkoak zein ikusentzunezkoak) eskura jartzea. Honetaz gain, eskuragarritasuna bermatzen duten produktuak eskaini behar dira (Braille, audioliburuak) eta behar bezala iragarri.

3.- OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

Osasuna

Gaur egun gaingaitua dagoen ikuspegi batek gizarte eta osasun zerbitzu publikoak zaintzarako neurri sorta bat bezala irudikatzen zituen. Historikoki eta gaur egun ere, emakumeak (beti ere gizonak baino dependienteago ekonomikoki) izan dira zerbitzu hauei erabilpen gehien eman dietena, eta beti gehien bat emakumeek osatutako lan-taldean aurrean. Osasuna, gaixotasun ezatik haratago, bizi-kalitatearekin harreman dago eta hau, aldi berean, lanean, familian, gizartean, ekonomian eta maila pertsonalean izaten diren baldintzekin.

Arlo hauetan, erantzunkizunen eta aukeren kudeaketak eragin zuzena dauka herritarren osasunean. Ez da arraroa pentsatzea parekidetasun ezak seriooki mintzen duela osasuna, batez ere lan eta diru baldintza okerrenak pairatzen dituen jendeari dagokionez, ordaindu gabeko lanak (etxea eta inguruko zaintzarekin lotutakoak) bere gain hartzen dituen jendearekin gertatzen den bezala.

Berdintasun alorretik lan egin da pertsona horiei zaintza, formakuntza eta asesoramendua eskaintzeko. Emakumeei, hain zuzen, hauek direlako zaintzale moduan lan egin ohi dutenak. Aldi berean, erantzunkidetasunaren gainean sentsibilizazio kanpainak populazio osoari zuzendu dira. Bigarren plan honek emakumeen bizi baldintzak hobetzeko eta erantzunkidetzaren alde jarraitu nahi du lanean, zuzenean lotuta dagoelako hau, ez soilik justiziarekin, baizik eta ongizatearekin eta elkarbizitzarekin.

Gizarte Zerbitzuak

Krisi ekonomikoak zerbitzu sozialen erabiltzaileen perfila aldatu du, baita Atarrabian ere. Aurreko Plana indarrean egon zen bitartean Zerbitzu Sozialen erabiltzaile gehienak emakumezkoak baziren (Etkez-etxeko laguntza zerbitzua baliatzen duten %90a emakumezkoak ziren) eta langabeziaren portzentai handiena emakumeengan topatzen bagenuen, azkenengo urteko memoria ikusita, esan dezakegu joera hori erabat aldatu egin dela eta gauregun bai gizonen eta bai emakumeen egoerak okertu egon direla eta biek, ia proportzio berean, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak izaten direla. Hala ere, honek ez du esan nahi emakume

eta gizonen egoerak berdindu egin direla, emakumeek gaur egun eta oraindik ere egoera larrienak pairatzen jarraitzen baituzte.

Erantzunkidetzak eta konziliazioak erronka nagusiak izaten jarraitzen dute. Emakumeek oraindik ere askoz denbora gutxiago izaten baitute lana bilatzeko, formatzeko, aisialdiaz disfrutatzeko, baliabide ekonomikoak lortzeko, e.a.

Oriangoan ere, genero indarkeriak aipamen berezia merezi du. Azken urte hauetan genero indarkeriaren kasuetan esku-hartzen duten eragileen formakuntzan eta kordinazioan lan egin bada ere, oraindik ere bide honetan gauza asko egiteke daude. Izan ere, koordinazio honen ondorioz Genero Idarkeriari buruzko toki-protokoloa sortu da.

Ezinbestekoa da krisi honek emakumeen eskubideen bulnerabilitatea areagotu egin dela ikustaraztea eta ezberdintasun eza eta diskriminazioaren muturreko adierazpena den genero indarkeriarekin bukatzeko berdintasunaren aldeko lanean jarraitzea funtzeskoa dela.

3.1 Emakumeen autonomia hobetu beraien osasuna kudeatzeko orduan eta arlo honen inguruan erabakitze gaitasuna bultzatu.

3.1.1. Emakumeei sexu eta ugalketa eskubide eta antisorgailuen inguruko informazioa eskeini (aniztasun funtzionala eta etorkinak diren emakumeen berezitasunak kontutan harturik).

3.1.2. Gazteei zuzendutako eredu estetikoaren presioa eta elikadurarekin harreman dutako arazoaren inguruko informazioa eskeini : bulimia, anorexia, "bigorexia", ea.

3.1.3. Ahal den neurrian, bakarrik bizi diren adineko emakumeen autonomia bermatzeko neurriak ezarri.

3.1.4. Osasun Etxeko eta Gizarte Zerbitzuetako langileei genero eta berdintasun inguruko formakuntza eskeini.

3.1.5. Lehen Arretako taldearekin elkarlanean kanpainak egin, iritza-emaile agente nagusi gisa, gizonezkoak mendeko pertsonen zaintza eta erantzunkide izan daitezen.

3.2 Pertsonen zaintza lanetan erantzunkidetzak bultzatu eta zaintzaileen bizi kalitatea hobetu.

3.2.1. Herritarrei zuzendutako erantzunkidetzari buruzko sensibilizazio kanpainarekin jarraitu.

3.2.2. Izatezko bikote berriak eta ezkontza berriei etxean eta zaintzan eman beharreko erantzunkidetzaren inguruko sensibilizazioa eta formakuntza eskeini.

3.2.3. Mendeko pertsoeen zaintza eta norberaren zaintzarako gizonen zuzendutako trebakuntza ikastaroak eskeini.

3.2.4. Jubilotekaren lanarekin jarraitu.

3.2.5. Genero ikuspegia txertatzen duten hiri udalekuekin jarraitu, konziliazio neurri eraginkor gisa.

3.2.6. Zaintzaileei zuzendutako formakuntza ikastaroak eskeini (erlaxazioa, emozioen kudeaketa, ea).

3.2.7. Tximeleta bezalako egitasmoak bultzatu non espazio propioak eta egokiak sortzen diren bazterketa sozialaren arriskuan dauden adin txikikoak eta euren zaintzaileekin aldi berean lan egiten den.

3.3 Gizarte Zerbitzuak eta genero ikuspegia testuinguru sozioekonomiko berriei egokitu.

3.3.1. Gizarte Zerbitzuetako langileei zuzendutako berdintasun inguruko formazioarekin jarraitu, krisi sozioekonomikoak sortu dituen errealitate eta behar berriei arreta eginez.

3.3.2. Herritarrei krisi sozioekonomikoak emakumeengan dituen ondorioak jakinarazi : ezkutuko lana, oraindu gabeko etxeko lanak, prekarizazioa, bulnerabilitate berriak...

3.3.3. Emakumeei zuzendutako teknologi berrien inguruko trebakuntza ikastaroak eskeini, batez ere, lanpostuen bilaketa, lan aholkularitza eta auto-lanareako lagungarriak izan daitezkenak.

3.3.4. Etorkinak diren emakumeei zuzendutako jabetze eta trebakuntza ikastaroak eskeini beharrezkoak dituzten arloetan.

3.4 Genero indarkeria pairatu duten emakumei zuzendutako laguntza hobetu

3.4.1. Genero indarkerien kasuetan esku hartzen duten eragileen koordinazioa hobetu : aholkularitza juridikoa, osasun laguntza, laguntza psikologikoa, Atempo, e.a. indarkeri mota honen adierazpenak berdintasunean ematen diren gabeziekin harremanduz.

3.4.2. Genero indarkeria pairatzen duten emakumeen osatzeari arreta, zaintza eta laguntza emateko egitaraua eta udal-baliabideak zabaltzen jarraitu (aniztasun funtzionalak dituzten emakumeak eta etorkinak diren emakumeen berezitasunak kontutan harturik).

3.4.3. Genero indarkeria kasuetan esku hartzen duten profesionalen berdintasunaren inguruko formakuntza eskeini (udaltzainak, osasun arlokoak, aholkularitza juridikoa, Gizarte zerbitzuetako langileak...).

3.4.4. Herritarrei zuzendutako genero indarkeriaren inguruko sensibilizazio kanpaineekin jarraitu, indarkeri mota honen adierazpen ezberdinak jakinaraziz, datuak zabalduz eta berdintasun ezarekin harremanduz.

3.5 Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako berdintasunaren printzipioa osasuna eta gizarte zerbitzuen eremuetan egokitu.

3.5.1. Genero indarkeria kasuetan esku-hartzen duten profesionalen indarkeri mota hau pairatu duten aniztasun funtzionala duten emakumeen berezitasunen inguruko formakuntza eskeini.

3.5.2. Herriko genero indarkeriari buruzko protokoloan aniztasun funtzionala duten emakumeek pairatu ditzaketen eraso sexistak eta genero indarkeri mota espezifikoak gehitu.

3.5.3. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileei aniztasun funtzionala duten emakumeen behar bereziei inguruko informazioa eskeini eta baita lan

orientatzaileei ere, edozein motako aniztasuna duen emakumentzako dauden baliabideak jakinarazteko asmoz.

3.5.4. Aniztasun funtzionala duten Atarrabiako emakumeei desgaitasunak dituzten emakumeen lan esperientziak ezagutarazi : beraiantzako lan hobiak non dauden eta lan egiteko aukera gehiago non topatu ditzaketen jakiteko.

3.5.5. Aniztasun funtzionala duten emakumeei lan eskubideen inguruko informazioa eman, batez ere soldatak eta prestazioak bateragarri egiteko aukerak ezagutzeko.

4.- HEZKUNTZA ETA KIROLAK

Hezkuntza

Hamarkadak dira badagoela jendartearen itun bat berdintasuna (eta honen eza) hezkuntzarekin lotzen duena. Balore parekideen transmisioa, aniztasunarekiko begirunea, diskriminazio eza eta aukeren, tratua eta eskubideen berdintasuna ezinbestekoa da hezkuntza prozesuaren barnean. Ikastetxeetan hauetatik at ematen diren jokabide sexistak ez errepikatzea guztiz beharrezkoa da. Aldi berean, era zuzen eta kontzientean eragin behar da identitatearen eraikuntza, harremanak eta neska-mutilentzako aukera berdinen bideak baldintzatzen dituzten estereotipoekin bukatzeko.

Hezkidetzaren programak urte batzuk daramatza indarrean Atarrabian hainbat ikastetxeetan. Izan ere, aurreko Berdintasun Planaren balorazioan emaitzarik hoberenetarikoa batzuk lortu zituen. Beraz, lehentasunetako bat da programa honekin jarraitzea, aurrera eginez eta sakonduz, bere partehartzea beste zentro batzuetara zabalduz, araututako espazioetan zein arautu gabekoetan, hezkuntza komunitatea hezkidetzaren lanetan koordinatuz eta inplikaturik, eta gurasoak formatuz Familia Eskola baten bitartez.

Kirola

Kirol jarduerak eta berdintasunari buruz teknikariekin, profesionalekin, kirolariekin edota hezitzaileekin hitz egiten den guztietan gehien errepikatzen den kezka kirolarekin harremandutako balore ez-lehiakorren galera izaten da. Arrakastarekin lotutako kirol zehatz batzuk eta horietan ospea duten kirolarien gehiegizko presentziak gainontzeko kirol jarduerak, lehiakorrak ez direnak, aisiarekin, talde jolasekin edota ongizatearekin harremanduta daudenak hain zuzen ezkutatu edo bigarren plano batean uzten ditu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspuntutik, kirol arloak konpontzeke dauden arazo batzuk planteatzen dizkigu: haurtzarotik hasita eta ikastetxeetan kirolak aukeratzeko ematen den sexuen arabera sesgoa (futbola, pelota, gimnasia erritmikoa, ea.), historikoki maskulinoz jo diren baloreen goraiapamena (abiadura, indarra, potentzia) femeninoz jo diren baloreak horrenbeste kontutan hartzen ez diren bitartean (oreka, koordinazioa, malgutasuna), nerabetasunean neska askok kirola egiteari uztea edo beranduago mendeko pertsonen zaintza bere gain hartzen dutenean berriz ere kirol jarduerak uztea, adineko gizonen ariketa fisikoaren eza beraien osasuna eta zaintzarekin lotzen ez dituzten heinean, komunikabideetan era gizartean kirolari profesionalak diren emakumeen presentzia eza, emakumezko kirolarien irudi estereotipatuaren erreproduzioa, klub eta federazioetako zuzendaritzetan parekidetasun eza...

Errealitate hauek Atarrabian ere ematen dira; hala ere, Atarrabiak egoera hauek eraldatzeko eta esku-hartzeko aukera asko dauka kirol eskeintza handia duen heinean eta herritarren artean kirol praktika oso zabalduta dagoelako. Atarrabian atletismoa, txirrindularitza eta mendia interes gehien pizten duten kirolak dira. Era berean kirol elkarteak eta kirol eskolak anitzak dira (futbola, saskibaloia, txirrindularitza, pelota, judoa, aerobika, tenisa...)

4.1 Hezkuntza komunitatea (familiak, irakaslegoa, ikaslegoa, irakasleak eta irakasleak ez diren langileak) hezkidetzaren oinarriak hezkuntzaren prozesuan txertatzearen beharraz jabetu.

- 4.1.1. Atarrabiako hezkidetzaren programarekin jarraitu, parte hartzen duten ikastetxeekin lanean sakonduz eta ikastetxe berriak programan sartuz.
- 4.1.2. Irakasleei estereotipoetan oinarritzen ez diren eta sexistak ez diren irudiak eta hezkuntzan ez sexistari buruzko formakuntza eskini (euskaraz zein gaztelaniaz) beraien lan jardueretan, zein barne eta kanpoko komunikazioetan erabili ez dezaten.
- 4.1.3. Erantzunkidetzaren joko ez sexistak, estereotipoak transmititzen ez dituzten bideojokuak, Martxoak 8a e.a-ri buruzko formakuntza eta sensibilizazio kanpainetan lagundu
- 4.1.4. Ikasgai guztietan emakumezkoen ekarpenak ikustarazi.
- 4.1.5. Lan orientazio ez sexista bultzatu, orientatzailei honen inguruko ikastaroak/hitzaldiak/ formakuntza eskeiniz.
- 4.1.6. Familien Eskolaren sorkuntza bultzatu, non Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gurasoen formakuntza beharrei erantzuzko diren.

4.2 Hezkuntza eremuetan eman daitezkeen genero indarkeria eta gainontzeko indarkeri moten aurreko prebentzioa landu (bullyinga, ciberbullyinga...)

- 4.2.1. Ikastetxeetan genero indarkeria eta eskola jazarpenaren prebentziorako protokolo espezifikoa landu eta abian jarri.
- 4.2.2. Bullyinga eta ciberbullyingaren adierazpen ezberdinak eta hauen prebentzioaren inguruko sensibilizazio eta formakuntza kanpianak antolatu hezkuntza komunitateko kideei zuzenduta.
- 4.2.3. Erespetuan, aniztasunean eta askatasunean oinarritzen diren feminitate eta maskulinitatea erdedu ezberdineen inguruko sensibilizazioa landu ikasleek eta familiei zuzendutako

4.3 Kirola eta aisia (kirola ez lehiakorra) bultzatu, neska eta mutilen arteko elkarbizitzaren eredu gisa.

- 4.3.1. Gazteak kirol praktikak ekartzen dituen onuretan hezi (osasunean, gorputzean, ongizate orokorrean) lehiakortasuna, kontsumoa, estetika edota modetatik at.
- 4.3.2. Atarrabiako gazteei zuzendutako gaueko kirol topaketa mistoak antolatu

4.3.3.Neska gazteek kirola egiteari utzearen arrazoiak aztertuko dituen ikerketa egin.

4.3.4.Udalaren Kirol Eskoletatik eta hezkuntza komunitatearekin batera, kirolean sexistak ez diren baloreen transmisioa landu

4.4 Gizon helduak kirol jardueretan inplikatu, norberaren zaintza, osasuna eta ongizatearekin lotuz.

4.4.1.Gizon helduekin ohitura osasuntsuek eta kirol jarduerak duten garrantziaren inguruko sensibilizazioa eta formakuntza landu

4.5 Emakumezkoen kirol jarduerak ikustarazi

4.5.1.Emakumeak protagonistak diren kirol jardueretan patrozinioa bultzatu.

4.5.2.Genero ikuspuntua txertatzen duen ikerketa bat egin non herritarrek duten kirol baliabideen heldzea aztertzen den.

4.5.3. Emakumeen kirol praktika txikiagoa edota praktika honen uztearen arrazoiaren artean kozilazio neurri eza dela baieztatzekotan, hau ekiditzeko neurriak hartu kirol eremuetan konzilazio neurriak martxan jarri.

4.5.4.Kirol federazioetan eta klubetako zuzendaritzan emakumeen parte hartzea bultzatu udal subentzioen formularioetan honen inguruko puntuak nabarmenduz.

4.6.- Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako berdintasunaren printzipioa kirola eta hezkuntza eremuetan egokitu.

4.6.1.Aniztasun funtzionalaren ikuspuntua hezkidetzaren programetan txertatu.

4.6.2.Aniztasun funtzionala duten pertsonen integrazio, estereotipoen apurketa eta pertsona hauen kirol, aisia edota kultura jardueretan partehartzearen garrantzia bultzatzeko sensibilizazio ekintzak burutu.

4.6.3.Aisialdiko bergiraleei eta kirol pertsonal teknikoari zuzendutako genero eta aniztasun funtzionalaren inguruko formakuntza eskeini.

4.6.4.Kirol lehiakorrean aniztasun funtzionala duten emakume eta neskeen partehartzea bultzatzeko ekintza positiboak (bekak, sariak) ezarri.

5.- GIZARTE-PARTAIDETZA ETA ELKARTEGINTZA

Gizarte-partaidetza eta elkartegintza

Elkartegintzaren aniztasuna eta protagonismoa Atarrabiak duen ezaugarri nagusietako bat da. Hau dela eta, Atarrabian abian jartzen den eraldaketaren bokazioa duen edozein egitasmoak herritarren eta elkartearen partehartzearekin kontatu behar du beraien ekarpenak haintzakotzat hartzen egitasmoaren planifikazioan eta diseinuan.

Tradizio edota ohitura partehartzaile honen ondorioz, Atarrabiako bizitza sozial, kultural eta politikoa emakumeen presentzia oso nabarmena izan da. Hala ere, eta abiapuntutzat harturik, egoera hau ona dela onartuta ere, ezin gara konformatu gaur egun elkartegintzan bizi dugun egoerarekin, oraindik ere berdintasunaren

bidean gainditzeko dauden jarrera asko daudelako: elkarten junta edota zuzendaritza arloetan oraindik ere paritatea ez da ematen, jai eremuetan emakumezkoen partehartzea oraindik ere ikustarazteko ahaleginak egin behar dira, jai eremu horietan ere genero indarkeria ekiditzeko eta salatze bidean lanean jarraitu behar da, elkarte mistoetan berdintasunean oinarritutako elkarbizitza bultzatzen jarraitu behar da, e.a.

Berdintasun Kontseiluaren sorrerak herritarrek eta elkarteek berdintasun alorrean duten parte hartzeko gogoia eta grinaren islada da. Horregatik II Plan honek erronka berri honi euts nahi dio eta Kontseiluaren eraginkortasuna eta koordinazioa errezteko eta gauzatzeko lan egingo du.

5.1 Elkartegintzan emakumeek duten partaidetza ikustarazi eta bultzatu

5.1.1. Herriko jaietan Berdintasun Egunaren ospakizuna era eskusiboan mantendu (egun berean beste zerbaiten eguna ospatua izan ez dadin)

5.1.2. Atarrabiako bizitza sozial, kulturean e.a-n bere ekarpenagatik bereiztu diren emakumei edota emakumeen taldeei onarpena eta esker on publikoa eskeintzea

5.1.3. Emakumeak eta Hiritar-Partaidetzaren inguruko I Ihaurdunaldiak antolatu.

5.2 Elkartegitza emakume eta gizonen arteko aukera berdinak, partaidetza eta elkarbizitzarako gune bilakatu.

5.2.1. Jaietako txapelketetan partehartze mistoa bultzatu edota tradizionalki feminizatuak izan diren jarduerak/jolasak antolatu (partxisa, badminton txapelketa, ea)

5.2.2. Herri mugimenduek, taldeek eta elkarteek adostutako genero indarkeria jai eremuetan ekiditzeko protokoloa landu eta martxan jarri.

5.2.3. Sortu berri diren elkarten estatutoetan berdintasunarekiko konpromesua adierazten dela bultzatu.

5.2.4. Elkarte mistoetako zuzendaritza batzordeetan sexuen arteko paritatea lotzeko ekintza zehatzak abian jarri.

5.2.5. Martxoaren 8an eta Azaroan 25ko antolakuntzan herriko talde eta elkarten partehartzea bultzatu.

5.2.6. Herriko talde eta elkarteei berdintasunaren inguruko formakuntza eskeini.

5.2.7. Berdintasunerako Kontseiluaren sustatu eta bertako partehartzea bultzatu.

5.3 Gizarte-Partaidetza eta elkartegintzaren arloan aniztasun funtzionala duten pertsonentzatzako berdintasun printzipioa egokitu.

5.3.1. Ezgaitasunak dituzten pertsonen osatutako elkarteetako erabakitze gunetan paritatea bermatzeko neurriak ezarri.

5.3.2. Elkarteek aniztasun funtzionala duten emakumeen partehartze aktiboa bultzatu, baita sindikatuek eta talde politikoek, batez ere, berdintasun batzordeetan.

